"Jirafa"



Gaur jirafa deskribatuko dugu.
Jirafak Afrikako Sabanan bizi dira eta munduko animaliarik altuenak dira.

Jirafek kolore horia eta marroia daukate, lepoa eta hankak oso luzeak dituzte eta mihia beltza eta luze-luzea.
Zuhaitzetako hostoak jaten dituzte.
Hirurogeita bost kilo egun batean.
Jirafek oso lo gutxi egiten dute, egunean 20 minutu bakarrik.
Jirafak beti taldeka ibiltzen dira.

1. **Zein da testu honen gaia?**

- [ ] Jirafak jaten duena.
- [ ] Jirafaren ezaugarriak.
- [ ] Animalien bizitza.

2. **Non bizi dira jirafak?**

- [ ] Basamortuan.
- [ ] Oihanean.
- [ ] Sabanan.
- [ ] Basoan.

3. **Jirafak hostoak jaten ditu. Zein motatako animalia da?**

- [ ] Haragijalea.
- [ ] Belarjalea.

4. **Jirafek, zenbat denbora egiten dute lo?**

..... egiten dute lo.

5. **Non aurki dezakegu honelako testu bat?**

- [ ] Egunkari batean
- [ ] Animalien liburu batean
- [ ] Ipuin batean